

“FINKATZE KAPITALA FINKATUZ, S.A.” SOZIETATE PUBLIKOAREN ESTATUTU SOZIALAK

I. TITULUA SOZIETATEAREN IZENA, XEDEA, HELBIDEA ETA IRAUPENA

1. artikulua.- Izen soziala eta araubide juridikoa.

1.- Honakoa izango da sozietatearen izena: “FINKATZE KAPITALA FINKATUZ, S.A.”

2. - Honako arau hauek erregulatzen dute aipatutako sozietatea: estatutu hauek, gobernu- eta administrazio-organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak, eta, halakorik ezean, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta aplikatzekoak diren edo etorkizunean horiek ordeztzen dituzten indarreko gainerako xedapenak.

2. artikulua.- Sozietatearen xedea.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa handietan epe luzeko finantza-partaidetzak eskuratzea, besterentzea eta kudeatzea, garantizatzeko enpresa horiek Euskal Autonomia Erkidegoan errotuta jarraituko dutela eta EAEko ekoizpen-ehun osoaren eragile izango direla.

2.- Xede hori garatzeko, sozietateak aukeran izango du eskuratu, besterendu, eduki eta administratzeko -bere kontura, zuzenean edo zeharka- nortasun juridikoa duten edo halakorik ez duten sozietateen edo entitateen akzioak, sozietate-partaidetzak, kuotak eta sozietate-kapitaleko beste edozein partaidetza edo interes, edo akzio, sozietate-partaidetza, kuota, partaidetza, errenta finko edo intereseko balio horiek eskuratzeko eskubidea ematen duten tituluak, bai eta sozietate eta entitate horiek, zuzenean edo zeharka, administratu, kudeatu eta zuzentzeko, haiek gobernatzeko eta kudeatzeko edozein organotako kide izanez, haietan parte hartuz eta horietan karguren bat betez.

3.- Xede horren barruan sartzen dira, halaber, sozietatearen helburuak eta jarduerak betetzeko beharrezko eta egoki diren jarduera osagarri guztiak.

4. – Deskribatutako jarduerak zuzenean garatzerik izango ditu sozietateak, bai eta zeharka ere -osorik edo zati bat- xede bera edo antzekoa duten akzioen edo beste sozietate batzuetako partaidetzen titulartasunaren bidez.

3. artikulua.- Helbidea.

1. – Sozietatearen egoitza Bilbon (Bizkaia) egongo da, Urkixo zumarkalea 36an.

2. – Administrazio-organoak egoitza soziala aldatzerik izango du, baina betiere, Bilboko udalerritik irten gabe. Batzar Orokorrak badu egoitza soziala Bilboko udalerritik kanpo ere aldatzerik, baina Euskal Autonomia Erkidegotik irten gabe.

3. – Administrazio Organoa da Sozietatearen mota guztietako bulegoak, sukurtsalak, agentziak edo ordezkariak ezarri, ezabatu edo lekuz aldatzeko ahalmena duen organoa, bai eta bere egitekoa eta funtzionamendua arautzeko ahalmena duena ere.

4. artikulua.– Iraupena.

Sozietatearen iraupena mugagabea da, eta eratzeko eskritura publikoa taxutzen den egunean hasiko ditu eragiketak.

II. TITULUA

INBERTITZEKO IRIZPIDEAK ETA PARTAIDETZAKO SOZINETATEETAKO ORGANO SOZIALETAN JARDUTEKO JARRAIBIDEAK

5. artikulua. -Inbertsio-politika.

1. – Inbertsioak egiteko eta partaidetzak hartzeko politikak lerrokatuta egon behar du politika publikoekin, bereziki Eusko Jaurlaritzak diseinatzen duen industrializazio-politikarekin.

2.– Inbertsio- eta desinbertsio-irizpideek, bai eta organo sozialetan parte hartzeko eta sozietate partaidetuetan akordioak hartzeko jarduketa-jarraibideek ere, gardentasun-printzipioak eta gobernu onaren arauak bete beharko dituzte, bai eta Estatuaren laguntzen arloan aplikatzekoa den Europako araudia ere.

I. KAPITULUA

INBERTSIO- ETA DESINBERTSIO-IRIZPIDEAK

6. artikulua. – Estatuaren laguntzen arloko Europako araudia nola aplikatu.

Kapitalean partaidetzak hartzekotan, Estatuaren laguntzen arloan aplikatu beharreko Europako araudia beteta hartu beharko dira, partaidetzako enpresei ez emateko Estatuaren laguntzat har daitezkeen abantailak, Batzordearen Estatuko laguntzaren kontzeptuari buruzko Jakinarazpenean (2016/c 262/01) eta arrisku-finantzaketako inbertsioak sustatzeko estatu-laguntzei buruzko Batzordearen Jakinarazpenean (2014/c 19/04) edo Europako araudian aurreikusitakoaren arabera.

7. artikulua. – Sozietateen kapitalean sartzeko irizpideak.

Sozietateen kapitalean sartzeko balorazio-prozesuan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1) Enpresaren tamaina: 100 milioi eurotik gorako fakturazio-bolumena duten eta gutxienez 50 langile dituzten enpresa handien kapitalean parte hartzea lehenetsiko da.

- 2) Forma juridikoa: Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean jasotako edozein forma, bai eta egoitza soziala Euskadin duten kooperatibak ere.
- 3) Enpresak, kapitalean sartzen den unean, Euskadin errotuta egon beharko du (enpresak edo haren establezimendu iraunkorretako batek Euskadin izan beharko du zerga-egoitza).
- 4) Ezin izango da parte hartu krisian dauden enpresetan.
- 5) Ezin izango da aldi berean parte hartu talde bereko enpresa bat baino gehiagotan.
- 6) Lehentasunezko sektore estrategikoak: aeronautika, elikadura, automobilgintza, biozientziak, eduki digitalak, ekoindustriak, energia, makineria, siderurgiako produktuak eta instalazioak, teknologia elektronikoak eta informazio-teknologiak, garraioak, mugikortasuna eta logistika. Sektore horiek ez dira zerrenda itxiak, eta alda daitezke aurrerago. Administrazio-organoak aukera izango du beste sektore ekonomiko batzuetan parte hartzea erabakitzeko.
- 7) Kokalekua eremu geografiko jakin batzuetan jartzea.
- 8) Zuzeneko eta zeharkako enplegua sortzea.
- 9) Sortutako ondasun eta zerbitzuak baliagarri izatea gizarterako.
- 10) Espero izatekoa den errentagarritasun ekonomikoaren balorazio arrazoitua taxutzeko aldagaiei buruzko txosten ekonomiko-finantzarioa eduki beharko da.
- 11) Enpresaren ibilbidea.
- 12) Plan Estrategikoa (enpresa-estrategia eta negozio-plana).
- 13) Partaidetzaren ehunekoa: gutxienez % 3 - % 5 bitartekoa (kotizatutako sozietateak diren ala ez kontuan hartuta) eta gehienez kapitalaren % 20koa. Ehuneko horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta partaidetza duen sozietatearen tamainaren arabera, gorantz edo beherantz alda daitezke. Partaidetza ezingo da inoiz kapitalaren % 49 baino handiagoa izan.
- 14) Arriskua dibertsifikatzea: kapitalaren % 15 baino gehiago ez kontzentratu sozietate baten kapital sozialean, eta zorro osoaren % 30 baino gehiago ez kontzentratu sektore-eremu zehatz batean. Hala ere, salbuespena eginez, sozietate bateko kapitaleko partaidetzan ehuneko horiek gaitzertzerik izango da, baldin Euskal Autonomia Erkidegoari onura ekonomikoa ekarriko dion "enpresa-arloko erronkaren" bat babestuko bada eta, betiere, Negozio Planean epe labur edo ertainean partaidetza hori aipatutako portzentaje-mugetara egokitze denbora-tartea ezartzen bada.
- 15) Parte-hartzearen iraupena: irauteko asmoz.
- 16) Due Diligence (legezko arriskuen analisia).

8. artikulua. - Partaidetzak balioestea

Kapital-partaidetzak hartzeko, aktiboen eta pasiboen balorazioari buruzko nazioarteko kontabilitate-araudia erabiliko da.

9. artikulua.- Inbertsio-politika gardena.

Inbertsio-politika gardena izango da, bai inbertsio egiteko hasierako erabakia hartzerakoan, bai partaidetzak edukitzen diren bitartean. Urteko memoria bat argitaratuko da, erakunde partaidetuen zorro osoari buruzkoa.

10. artikulua. – Sozietateetako kapitaletik ateratzeko irizpideak.

1. – Kotizatu gabeko sozietateen kasuan, partaidetzako erakundearekin akziodunen ituna formalizatzeko ahalegina egingo da, sozietateak akzioak edo partaidetzak saltzeko aukera bat arautzeko moduan, eta, aldi berean, akziodunek edo bazkideek akzioak edo partaidetzak erosteko betebeharra arautzeko moduan, itunean aurrez zehaztutako balio batean eta formula matematiko baten bidez.

2. – Kotizatutako sozietateen kasuan, haien akzioak besterendu egingo dira merkatura joz.

3. – Kooperatiben kasuan, sarrera egiten den unean akordio bat finkatuko da, borondatezko baja edozein unetan hartzeko aukera jasotzen duena, eta kapital sozialerako ekarpenak itzultzeko eskubidearekin eta kenkarietarako aukerarik gabe egingo dira bajaren kasuan, kasu zehatz horretarako beste akordio mota bat behar denean izan ezik.

4. – Oro har, partaidetzako sozietatearen kapitalean jarraituko dugu luzerako, edo kapitalean sartzeko oinarria izango den negozio-plana egin arte. Hala ere, enpresa partaidetuaren kapitalean irteera aurreratua dakarten inguruabar jakin batzuk gerta daitezke, hala nola enpresaren edo establezimendu iraunkorraren zerga-egoitzaren aldaketa, Plan Estrategikoan ezarritako konpromisoak ez betetzea, legezko arriskuren bat gauzatzea, enpresa partaidetuaren jabetzak titulartasuna aldatzea edo Akziodunen Itunean edo, kooperatiba bat izanez gero, sartzeko aurretiazko akordioan jasotako betebeharrak ez betetzea.

II. KAPITULUA

ORGANO SOZIALETAN PARTE HARTZEKO ETA SOZIJETATE PARTAIDETUETAN ERABAKIAK HARTZEKO JARRAIBIDEAK

11. artikulua. Jarduteko arauak.

1. – Kapital-partaidetzak hartzearen helburua zera izango da Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen jarraibideekin lerrotzea, bereziki industrializazio-politikarekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak errotzea.

2. – Lehenasunezko helburu horiek kontuan hartuta, ahaleginak egingo dira edozein enpresaren kapitalean parte hartzearekin batera administrazio-organoko ordezkari bat izenda dadin. Ordezkari horrek gaitasun, esperientzia eta kualifikazio egokiak izan beharko ditu, bai eta bere eginkizunak betetzeko behar den prestasuna eta jarrera ere. Ordezkariak ezingo du, inola ere, Finantzen Euskal Institututik edo sozietatetik ez datorren ordainsaririk edo dietarik jaso.

12. atala.– Akziodunen ituna.

Kasu jakin batzuetan eta kotizatu gabeko sozietateen kasuan, gerta liteke zehaztea, norbait administrazio-organoko kide izendatzearekin batera, akziodunen itun bat sinatu beharko dela sozietate jakin batean parte hartzeko. Itun horrek betebeharrak jakin batzuk ezarriko ditu, hala nola: luzerako irautea eta akzioen eskualdaketa eta salerosketako aukerak aldi batez ezin egitea; gehiengo kualifikatua ezinbesteko izatea akziodunen batzar orokorrak akordioak hartzeko; Administrazio Organoa eratu beharra; kontu jakin batzuek oraindik eta gehiengo handiagoa behar izatea Administrazio Organoaren onespena izango badute; akzioak nahieran transmititzeari mugak jartzea; sozietate partaidetuari exijitzea partaidetza eskuratzeko jarritako baldintzak beti bete beharko dituela edo sozietate partaidetuaren jarraipena egiteko dokumentazioa bidal dezala.

III. TITULUA KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK

13. artikulua.- Sozietatearen kapitala.

1. – Sozietatearen kapitala EHUN ETA HIRUROGEI MILIOI (100.000) eurokoa da, eta 1.600 akzio arrunt eta izendun ditu, mota eta serie bakarrekoak, bakoitza EHUN MILA (100.000) euroko balio nominalekoa. Denak ere ondoz ondo ordenatuta daude zenbakitan, 1etik 1.600 arteko zenbakiak, biak barne, eskubide politiko eta ekonomiko berberak dituzte, eta tituluetan gauzatuta daude.

2. – Akzioak erabat harpidetuta eta ordainduta daude.

14. artikulua. – Akzioen formak, eta akzioak eskuratzeko eta eskualdatzeko modua.

1. – Akzioak taloi-liburuetan egingo dira eta ondoz ondo zenbakituko dira. Tituluak banakakoak edo anitzak izan daitezke, eta, anitzak badira, hamar multiploko akzio kopurua izan beharko dute. Behin-behinean, inskripzio-frogagiriak egiterik izango da; horiek ere taloi-liburuetatik moztuko dira eta ondoz ondo ordenatuko dira zenbakitan.

2. - Akzioen liburu-erregistroa eman behar da, eta bertan inskribatuko dira transferentziak, izena, abizenak edo arrazoi zein izen soziala adierazita, bai eta, beharrezkoa bada, titularren

nazionalitatea eta helbidea ere. Akzioen gain eraturako eskubide errealak eta kargak ere bertan azaldu beharko dira.

3. – Akzioak eskualdatzeko, zuzenbidean onartutako edozein bide erabiltzerik izango da. Akzioak, inter vivos egintzen bidez, sozietateak kanpoko inori eskualdatzekotan, hau da, akziodun ez direnei eskualdatzekotan, honako arau hauek bete beharko dira, kontratuzko itun funtsezko eta berezkoa den aldetik:

a) Akzioa edo akzioak intervivos eskualdatu nahi dituen bazkideak fede eginez jakinarazi beharko dio sozietatearen administrazio-organoari akzioa edo akzioak eskualdatzeko hartutako erabakia, jaso beharreko prezioa edo kontraprestazioa, eskualdatzearen funtsezko baldintzak eta eskuratzaileren izena, helbidea eta inguruabarrak. Administrazio-organoak bazkideei jakinaraziko die jakinarazpen horren edukia, jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean.

b) Transmittitu beharreko akzioa edo akzioak erosteko aukera izango dute bazkideek, administrazio-organotik jakinarazpena jaso eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan. Bazkide batek bakarrik erabiltzen badu lehentasunezko erosketa-eskubidea, bazkide horrek eskuratuko ditu akzioa edo akzioak. Bazkide bat baino gehiago badira lehentasunezko erosketa-eskubidea baliatu nahi dutenak, akzioak guztien artean banatuko dira, bakoitzak bere akzioen arabera. Akzio bat bada, akzio hori denen artean eskuratuko dute lehentasunezko erosketa-eskubidea dutenek, bakoitzaren akzioen hainbanaketa eginez.

c) Bazkide batek ere ez badu erabiltzen lehentasunezko erosketa-eskubidea (aurreko paragrafoan arautzen dena), orduan Sozietateak izango du aukera eskualdatu beharreko akzioa edo akzioak eskuratzeko, Sozietatearen Batzar Orokorrek kapitala murrizteko erabakia hartzen badu aurretik, hogeita hamar eguneko epean. Horrela eskuratutako tituluak amortizatu egingo dira.

d) Artikulu honetan bazkideen eta sozietatearen alde ezarritako lehentasunezko erosketa-eskubidea egikaritzeko, lehentasunezko eskubidearen xede diren akzioak eskuratzeko prezioa eta gainerako baldintzak alderdiek kasu bakoitzean adostutakoak izango dira. Adostasunik ez badago, sozietatearen auditoreak zehaztutako arrazoizko balioaren berdina izango da prezioa. Halakorik ez balego, aditu independente batek zehaztuko luke prezioa; aditu hori ez da izango sozietatearen auditorea, Merkataritzako Erregistroak izendatutakoa izango da, administratzaileek hala eskatuta.

e) Sozietateak inolako baliorik eta ondoriorik gabekotzat joko ditu artikulu honetan aurreikusitakoa zorrotz bete gabe egiten diren eskualdaketak.

15. artikulua. – Akzioek ematen dituzten eskubideak.

Akzio baten edo gehiagoren titular izateak bazkideetza ematen duenez, Legeak nahiz Estatutu hauetan ezarritako eskubideak izango dituzte aurrerantzean titularrek.

III. TITULUA
SOZIEATEAREN GOBERNU- ETA KUDEAKETA-ORGANOAK.

16. artikulua.– Sozietatearen organoak.

Sozietatearen gobernu eta kudeaketa honako organo hauek eramango dute:

- a) Akziodunen Batzar Orokorrak.
- b) Administrazio-organoak.

I. KAPITULUA
AKZIONUNEN BATZAR OROKORRA

17. artikulua.- Batzarraren akordioen izaera eta nahitaezkotasuna.

Akziodunen Batzar Orokorra da, behar bezala deitu eta eratuz gero, Sozietatearen organo soberanoa da. Akordioak, baliozko izateko moduan hartuz gero, obligazio izango dira akziodun guztientzat, baita absente edo disidenteentzat ere, edozein direlarik ere legeak bazkideei ematen dizkien eskubideak.

18. artikulua. Batzar Orokorraren motak

- 1.- Batzar orokorrak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke.
- 2.- Batza orokor ohikoak ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barruan batuko da, eta, hala egokitzen bada, sozietatearen kudeaketa onesteko, aurreko ekitaldiko kontuak onesteko eta emaitzak nola aplikatu erabakitzeko.
3. – Batzar Orokorraren gainerako bilera guztiak ezohikoak izango dira.

19. artikulua.- Deialdia egitea, eta karguak eta izendatzea.

1. – Batzar Orokorra biltzeko deialdia administrazio-organoak egingo du, eta, hala badagokio, sozietatearen likidatzaileek, sozietatearen interesetarako beharrezkoa edo komenigarria dela uste duten guztietan, eta, betiere, legeak eta estatutuek zehaztutako egun edo epeetan.
2. – Administrazio Kontseiluan batzordebura eta idazkaria direnek izango dituzte kargu horiek Batzarrean, baldin eta kontseilua sozietatearen Administrazio Organoa bada, edo, bestela, batzar bakoitzak horretarako izendatzen dituenak.

20. artikulua.- Batzar Unibertsala

Berariazko deialdirik egin gabe ere, Batzar Orokorra behar bezala deituta eta eratuta geratuko da edozein gai aztertzeko, baldin eta sozietatearen kapital osoa bertan badago eta bertaratutakoek aho batez erabakitzen badute Batzar Orokorra egitea, denek aho batez onartutako gai-zerrendaren arabera.

21. artikulua.- Batzar orokorretara bertaratzea.

1. – Akziodun guztiek izango dute Batzar Orokorretara joateko eskubidea, bai ohiko batzarretara bai ezohikoetara, eta hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea ere izango dute, edo beste pertsona baten bidez ordezkatzekoa.

2.- Bazkide izan gabe Administrazio-kontseiluko kide direnek Batzar Orokorrera joan behar dute. Hitza izango dute, baina botorik ez.

3. – Batzar Orokorrak aukeran du bazkide ez direnei batzarrera joateko baimena ematea; haiek batzarrean hitza izango dute, baina botorik ez. Jende hori gai-zerrendako puntu jakin bati buruzko informazioa emateko badoa batzarrera, gai hori eztabaidatzeko besterik ez dira jardungo bileran.

22. artikulua.– Aktak, ziurtapenak eta akordioak nola mamitu.

1. – Ohiko zein ezohiko Batzar Orokorreko eztabaidak horretarako egindako aktetan jasoko dira, eta lehendakariak eta idazkariak edo horien ordezkoez sinatuko dituzte.

2. – Batzar Orokorrean hartutako erabakiak egiaztatzeko, ziurtapen-ahalmena duten pertsonak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

3. – Behar bezala hartutako erabakiak banan-banan betearazteko, Batzar Orokorrak askatasun osoz izendatu ahal izango du administrazio-organoko edozein kide.

4. – Izendapenik ez badago, legezko araudiaren arabera erabakiok betearazteko ahalmena duen edozeinek betearaziko ditu Batzar Orokorraren erabakiak.

5. – Hala egitekotan, baliteke betearaztea horretarako ahaldun den pertsonaren esku uztea, kasu honetarako ez ezik, baita guztietarako ere.

23 artikulua.- Akziodunen Batzar Orokorraren eskumenak.

Batzar Orokorraren eskumenak honakoa dira: Kapital Sozietateen Legeak emandako denak eta, oro har, sozietatearen jarduera garatzeko beharrezkoak diren denak, eta, bereziki:

a) Urteko kontuak onartzea, emaitza aplikatzea eta kudeaketa soziala onartzea.

- b) Administratzaileak, likidatzaileak eta, hala dagokionean, kontu-auditoreak izendatzea eta kargugabetzea, bai eta horietako edozeinen aurka erantzukizuna eskatzeko sozietate-akzioa egikaritzea ere.
- c) Estatutu sozialak aldaraztea.
- d) Kapital soziala handitu edo urritzea.
- e) Lehenetasuneko harpidetza-eskubidea eta lehenetasuneko bereganatze-eskubidea ezabatzea edo mugatzea.
- f) Funtsezko aktiboak erostea, besterentzea edo beste sozietate bati ekarpena egitea. Aktiboa funtsezkoa dela jotzen da eragiketaren zenbatekoak onartutako azken balantzean agertzen diren aktiboen balioaren ehuneko hogeita bosta gainditzen duenean.
- g) Aktiboa eta pasiboa eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo lagapen orokorra egitea, eta egoitza atzerrira eramatea.
- h) Sozietatea desegitea.
- i) Likidazioaren azken balantzea onartzea.
- j) Jarduera- eta inbertsio-plan orokorrak onartzea.
- k) Kapital Sozietateen Legeak Batzar Orokorrari esleitzen dion beste edozein gai.

II. KAPITULUA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

24. artikulua.- Administrazioa antolatzeko moduak

Batzar Orokorrak kasu bakoitzean erabakitzen duenaren arabera, sozietatearen administrazioa eta zuzendaritza honako hauei egokituko zaizkie:

- a) Administratzaile bakarrari.
- b) Bi administratzaile solidariori.
- c) Bi administratzaile mankomunaturi.
- d) Administrazio Kontseilu bati.

25. atala.– Izendapena.

- 1.- Batzar Orokorrak du administratzaileak edo kontseilariak izendatzeko eskumen eskusiboa.
2. – Administratzaile edo kontseilari izateko ez da beharrezkoa izango bazkide izatea.

26. artikulua. -Karguaren iraupena

Administratzaile edo kontseilari izendapenaren iraupena bost urtekoa izango da, izendapenetik kontatzen hasita, eta behin edo gehiagotan hautatu daitezke berdinak, iraupen bereko aldietarako; alabaina, Batzar Orokorrak edozein unetan kargutik kentzea erabaki dezake.

27. artikulua. Administrazio-organoaren eskumenak.

1. – Administrazio Organoak -zuzenbidean bidezko diren ahalmen zabalenak dituenz baina Batzar Orokorrak behar bezala hartutako erabakietatik nahiz Legeak eta Estatutuek Batzar Orokorrari erreserbatutako ahalmenetatik eratorritako mugen barruan jokatuta-sozietatearen zuzendaritza eta administrazio gorena izango du, eta epaiketetan eta epaiketatik kanpo haren ordezkari jardungo da. Estatutuetan zehaztutako sozietate-xedea osatzen duten egintza guztietan jardun daiteke ordezkari.

2. – Bereziki, adierazpen-izaerarekin eta mugarik gabe, honako hauek izango dira administrazio-organoaren eskumenak:

a) Ohiko eta ezohiko Batzar Nagusien deialdia erabakitzea, estatutu hauen arabera, hala dagokionean, gai-zerrenda idatziz eta egoki iritzitako proposamenak eginez, deitutako Batzar Orokorraren izaeraren arabera.

b) Batzar Orokorrak onartutako erabakiak betearaztea eta, hala badagokio, jendaurrean jartzea, eta Batzar Orokorrak agindutako edozein eginkizun betetzea.

c) Sozietatearen ordezkari izatea era guztietako pertsona, organismo, agintari, administrazio publiko eta gainerako erakundeen aurrean, bai eta edozein jurisdikzioen aurrean ere (arrunta, administratiboa, berezia, lanekoa, etab.), eta edozein auzialditan; bere eskubideak defendatzeko dagozkion era guztietako ekintzak gauzatzea, epaiketetan nahiz epaiketatik kanpo, prokuradoreei dagozkien ahalmenak emanez eta eskuratuz, eta abokatuak izendatuz epaitegi eta erakunde horien aurrean sozietatea ordezkatzeko eta defendatzeko.

d) Sozietatearen enpresa-antolaketa zuzentzea eta gizarte-negozioak administrazioa, sozietateari dagozkion legezko edo borondatezko betebeharrak betetz eta betearaziz.

e) Sinatzeko jartzea mota guztietako banku-eragiketak eta sozietatearen izenean jardutea eragiketara horietan, kontu korranteak irekiz eta itxiz, horiek eskueran izanik; kanbio-letratan esku hartzea igorle, onartzaile, abal-emaitza, endosante, endosatzaile edo horien edukitzaile

gisa; dirua maileguan edo kredituan hartzea, bermearekin edo bermerik gabe, eta zorra eta kredituak aitortzea; funtsen, errenten, kredituen edo baloreen transferentziak egitea, diruzko edozein igorpen- edo mugimendu-prozedura erabiliz; kontuetako saldoak onestea; gordailu edo fidantzak eratu, atera edo kitatzea; kontuak konpentsatzea, aldaketak formalizatzea, eta dirulaguntzak eta bermeak onartzea.

f) Egintza, kontratu edo negozio juridiko oro ematea, egoki jotako itun, klausula eta baldintza taxutuz; arbitrajeetan transigitu eta itunak egitea; lehiaketa eta enkanteetan parte hartzea; proposamenak egitea eta esleipenak onartzea; hipotekak eta beste karga edo eskubide erreal batzuk eratzea eta ezereztea sozietatearen ondasunen gainean, bai eta mota guztietako pribilegio edo eskubideei uko egitea ere, ordainketa bidez edo ordainketa gabe.

g) Edozein tituluren bidez akzioak, obligazioak edo bestelako balore-tituluak eskuratzea, kargatzea eta besterentzea, eta, oro har, akzioen, obligazioen edo bestelako balore-tituluen gaineko eragiketak egitea, bai eta beste sozietate batzuetan parte hartzea dakarten egintzak ere, eraketan parte hartuz edo kapital-gehikuntzetan edo balore-tituluen bestelako jaulkipenetan akzioak harpidetuz, administrazio-organoan postuak onartuz.

h) Mota guztietako ahalordeak eman eta errebokatzea, bai judizialak bai judizioz kanpokoak, orokorrean edo gai jakin batzuetarako egokituz jotzen dituen eskuduntza eta ahalmenekin.

i) Sozietatearen mota guztietako bulegoak, sukurtsalak, agentziak edo ordezkariak sortzea, ezabatzea edo lekuz aldatzeko erabakia hartzea, eta haien egitekoa eta funtzionamendua arautzea.

j) Ohiko Batzar Orokorra egiteko deialdiaren aurretik, aurreko ekitaldiko abenduaren 31n itxitako ekitaldi ekonomikoaren balantzea eta galeren eta irabazien kontua egitea, bai eta kudeaketa-txostena eta memoria idaztea ere, indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzetan.

k) Dibidendu-politika planteatzea eta Batzar Orokorrari emaitzaren aplikazioari buruzko akordio-proposamenak egitea, bai eta dibidenduen konturako zenbatekoak ordaintzeko erabakia hartzea ere.

28. Artikulua.- Administrazio-organoaren ordainsaria.

Administratzaileen ordainsaria Batzar Orokorrak erabaki dezake ekitaldi bakoitzerako, indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako mugen arabera.

29. artikulua.- Administrazio Kontseilua.

1. – Administrazioa administrazio-kontseilu bati dagokionean, lehendakariak, lehendakariordeak eta gutxienez hiru eta gehienez bederati bokalek osatuko dute kontseilu hori. Denak, bakoitza bere ezaugarriekin, Batzar Orokorrak izendatuko ditu.

2. – Kontseiluko kide izateko ez da beharrezkoa izango akziodun izatea.
3. – Kontseilua kudeatzeko epean lanposturen bat hutsik geratzen bada, Batzar Orokorrak ordezkatu egingo du, izendatzeko bete behar diren baldintza berberekin.
4. – Administrazio Kontseiluaren bitartez beteko da idazkari kargua, baina kargu horretarako ez da beharrezkoa izango kontseilari izatea. Idazkaria ez badago edo ezinezkoa bada, kontseilari gazteenak ordeztuko du.
5. – Administrazio Kontseiluaren bilerak ez dira nahitaez egoitza sozialean egin behar; gainerako baldintzak betetzen badituzte, beste edozein lekutan egiten direnak ere balekoak izango dira.
6. – Administrazio Kontseilua lehendakariak edo horren ordezekoak deialdia egin ondoren bilduko da.

Gutxienez kontseiluko kideen herena osatzen duten administratzaileek ere egin dezakete deialdia, eguneko gai-zerrenda zehaztuta, sozietatearen egoitza dagoen herrian egiteko bilera, baldin eta, aurretik lehendakariari eskaera egin arren, hark hilabeteko epean ez badu deialdia egin, inolako arrazoi justifikaturik gabe.

Administrazio-kontseiluak gutxienez hiru hilean behin bildu beharko du.

7. – Administrazio Kontseilua edozein gai aztertzeko deitu eta eratu dela joko da, baldin eta, kide guztiak bertaratuta, aho batez erabakitzen badute Kontseilua egitea.
8. – Aldez aurretik bidalitako gai-zerrendan jasotako gaiak bakarrik eztabaidatu ditzake Administrazio Kontseiluak.
9. – Une horretan kontseilari diren guztiak joan daitezke Kontseiluaren bileretara, eta hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Kontseilua behar bezala eratuta izango da, gutxienez, kideen erdia gehi bat bertara bildu badira, zuzenean edo ordezkarien bidez. Kontseilari kopurua bakoitia bada, aurreko baldintza betetzen dela ulertuko da bertaratuen eta ordezkatuaren arteko bilerara bertaratzen ez direnak eta bileran ordezkariarik ez dutenak baino kontseilari gehiago bertaratzen direnean.
10. – Ordezkaritza beste kontseilari bati emateko, lehendakariari edo haren ordezkoari jakinarazi behar zaie, gutun baten bidez. Kontseiluaren bilera bakoitzerako eman beharko da ordezkariak, hortaz ordezkariak orokorrak ez dira baliozkoa izango.
11. – Administrazio Kontseiluko lehendakariak baimena eman diezaike bazkide ez direnei, bileran egoteko. Hitza izango dute, baina botorik ez.
12. – Kontseiluaren erabakiak bertaratutako eta ordezkaturako botoen gehiengo osoz hartuko dira, legeak edo estatutu hauek bestelakorik eskatzen ez badute. Berdinketarik egonez gero, Kontseiluko lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

13. – Bilkura bakoitzean akta egingo da, eta Kontseiluak onartu ondoren, ordutik aurrera indar betearazlea izango du. Kontseiluaren bilera bakoitzeko aktak idazkariaren zaintzapean egongo dira, eta, hala badagokio, lehendakariak ezarritako langileen eta baliabideen laguntza izango du.

14. – Administrazio Kontseiluak sozietatearen interesak zuzendu, kudeatu eta administratzeko ahal eta gaitasun zabalak izango ditu, eta Batzar Orokorrak berariaz erreserbatuta ez dituen eskumenak izan ezik, gainerako eskumen guztiak izango ditu.

15. – Kontseiluko lehendakariak, kontseilari gisa dagozkion eskumenak eta Legeak edo estatutu hauek esleitzen dizkieten eskumenak taxutzeaz gain, Administrazio Kontseiluaren erabakiak betearaziko ditu, eta Sozietatearen ordezkari izango da Batzar Orokorrean eta Administrazio Kontseiluan hartutako erabakietatik eratorritako egintza eta kontratu guztietan. Era berean, sozietatearen ordezkari izango da aurkeztuko zaizkion auzi, espediente, administrazio-arazo, gobernu-arazo, arazo judizial eta judizioz kanpoko guztietan, bai demandatzaile edo demandatu gisa, bai beste edozein izaerarekin. Lehendakariak bere eskumen guztiak edo batzuk eskuordetu ahal izango dizkio Kontseiluko beste kideren bati.

IV. TITULUA SOZIETATEAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

30. artikulua.- Ekitaldiaren iraupena.

1.- Ekitaldi ekonomikoa eta egutegiko urtea bat etorriko dira.

2. – Salbuespen gisa, lehenengo ariketa eratzeko eskritura publikoa egiten den egunean hasiko da.

31. artikulua.- Urteko kontuak, kudeaketa-txostena, eta emaitza aplikatzeko proposamena prestatzea.

1. Sozietatearen ekitaldia itxi eta gehienez hurrengo hiru hilabeteetan, sozietatearen Administrazio Organoak urteko kontuak formulatu beharko ditu, ezinbestean, bai eta kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena ere, eta, hala egokitzen denean, kontu eta kudeaketa-txosten bateratuak.

2. -Urteko kontuetan honakoak sartzen dira: balantzea, galera-irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbiaren aldaketak erakusteko orria, kutxa-fluxuen orria eta oroitidazkia.

3.- Balantze onetsiak adierazten duen emaitzaren erabilera erabaki behar du Batzar Orokorrak.

32. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-agiriak.

1. – Administrazio Organoa arduratuko da legean nahitaez ezartzen diren edo Batzar Nagusiak adierazten dituen ekonomia, aurrekontu eta kontabilitateko liburu, erregistro, programa eta agiri guztiak eramateaz eta formulatzeaz.

2.- Administrazioaile guztiek sinatu behar dituzte urteko kontuak eta kudeaketa-txostena. Horietako batek sinatu ezean, zehaztu egin beharko da zein agiri ez duen sinatu, horren arrazoia zehatz azalduta.

33. artikulua.- Auditoria eta kontu-zentsura.

1. – Kontuen azterketa eta zentsura ekitaldi bakoitzerako egingo dira, kapital-sozietateei buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

2. – Batzar Orokorrek badu erabakitzerik Sozietatearen kontuak sozietatetik kanpoko pertsona edo erakunde espezializaturen bati ematea, hark azter ditzan. Horri buruzko txostena, kontuekin batera, Batzarrari aurkeztuko zaio, onar dezan.

V. TITULUA SOZietATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

34. artikulua.- Kausak.

Sozietatea legean ezarritako arrazoiengatik desegingo da.

35. artikulua. - Likidatzaileak

1. – Administrazio Organoari dagokio sozietatearen likidazioa betearaztea, salbu eta Batzar Orokorrek kontrakoa erabakitzen badu edo hori eragozten duen legezko aitzakia ez badago. Organo horrek Batzar Orokorraren erabakien eta estatutuen arabera egingo du likidazioa.

2. – Likidatzaileak kopuru bikoitia izanez gero, administrazio-organoko kide gazteenak ez du likidatzaile-eginkizunik hartuko.

36. artikulua.– Prozedura.

Estatutu hauetan berariaz aurreikusten ez den guztirako, sozietatea desegin eta likidatzeari buruz Kapital Sozietateen Legean ezarritakoa aplikatuko da.